

## EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO KONTRATATUEN MUGIKORTASUNA (EGONLABUR PROGRAMA)

### **Deialdiaren xedea:**

Laguntzak ematea beka aplikatzen den zentroetan ez beste batzuetan doktorego aurreko egonaldiak egin ditzaten prestakuntza bidean dauden ikertzaileek.

### **Onuradunak:**

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Doktore ez diren Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko 2021-2022 programaren onuradun direnek eskatu ahal izango dituzte laguntzok. Laguntza horiek lortu ahal izateko, ezinbestekoa da prestakuntzan ari diren ikertzaileak jardunean egotea eta beka-programa lehenengoz, bigarrenez eta hirugarrenez berrituta izatea.

### **Diru laguntzen ezaugarriak:**

Egonaldiak 2022. urtean egin behar dira.

Laguntzak eska daitezke hiru hilabeteko egonaldi bakarra egin ahal izateko, unibertsitateetan, ikerketa zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I+G+b-ren esparruan diharduten enpresetan, atzerrikoak zein estatukoak izan, betiere aplikazio zentroa ez den udalerrri batean badaude eta egonaldiak bizilekua aldi baterako aldatzea badakar.

### **Eskaerak aurkezteko epea:**

**2021/10/29 - 2021/11/29**

**GARRANTZITSUA:** eskatzaileek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean.

### **Eskaera aurkezteko era:**

Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/egonlabur/web01-tramite/eu/telematikoki> eskuragarri egongo den inprimakiaren bitartez baizik ezingo da egin eskabidea. Eskabideari atxikitako dokumentuak harekin batera bidali beharko dira, aplikazio elektronikoaren bitartez.

Aplikaziora ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko da.

Eskabide telematikoa guztiz betetakoan, egoitza elektronikoak onartutako sinadura elektronikoaren sistema bat erabiliz identifikatu beharko da eskatzailea, eta eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu beharko du; alegia, eskabide bat sinadura elektronikoaren bitartez baliozkoa izatekoa, erregistroan jasota geratu behar da. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuen erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoan bete eta erregistratutako eskabiderik.

**GARRANTZITSUA:** eskaera hau aurkezteko **ez** da behar UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura.

### **OHARRA:**

Justifikatutako arrazoiengatik, baliteke baimena ematea ikerketa-egonaldia aldi baterako eteteko.

COVID-19aren pandemiak edo antzeko egoerek kalte nabarmena eragingo baliokete ikerketa-egonaldiari, kalte horren ondorioz ezinezkoa izanez ikerketa-proiektua erreskadan garatzea, eta hori dela eta egonaldia eten behar bada, aukera egongo da aurrerago etenaldiko denbora berreskuratzeko.

Eteteko eskaera Ikerketako Zuzendaritzari aurkeztuko dio onuradunak, eta zentro hartzaileko ikertzaile arduradunaren adostasuna izan beharko du, bai eta tesiaren zuzendariaren eta eskatzailea atxikita dagoen saileko zuzendariaren adostasuna ere. Etenaldia egiteko arrazoia zehaztu beharko da, eta egonaldia osatzeko data berriak adierazi. Era berean, COVID-19ren pandemiak eragindako ondorioz inork zentroa aldatzeko eskatzen badu, onartu egingo zaio aldatzea, baldin eta bestela proiektua emakida-ebazpenean ezarritakoaren arabera garatzea ezinezkoa balitz.

### **Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):**

**945 01 82 95/ [huisibas@euskadi.eus](mailto:huisibas@euskadi.eus)**